

Idiazabal Kirol Elkarteko Mendi Sailaren

II. MENDIKO ARGAZKI DIGITALEN LEHIAKETA

ANTOLATZAILEA: Idiazbalgo Kirol Elkartea - Mendi Saila

SAILAK

2 sail izango dira:

- Epaimaiak aukeratutako argazki **ikusgarriena**
- Publikoak "Facebook" bidez **hautatuak**.

Partaide bakoitzak 3 argazkazki aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

Partehartzaileak herritarrak izan beharko du.

ARGAZKIEN EZAUGARRIAK

Bidalitako argazkiak mendiko irudi originalak eta argitaratu gabekoak izan behar dira derrigorrean. Argazkiak formatu digitalean aurkeztu behar dira JPEG formatuan, (koloretan edo zuri-beltzean). Artxiboa 2 eta 12 MB bitarteko edukia izan beharko du.

NOLA AURKEZTU ETA BIDALI

Aurkezten den argazki bakoitza posta elektronikoko bakarrean itsatsita bidaliko da.

Mezuan honako datu hauek agertuko dira: egilearen izen- abizenak, telefonoa, argazkiaren izenburua eta tokia. Mezuak iritsi ahala, lehiaketaren antolatzaileak argazki bakoitzari zenbaki bat jarriko dio eta datu-base bat sortuko du argazki eta datuekin. Epaimahaikoek zenbatutako argazkiak jasoko dituzte baina soilik antolatzaileak jakingo du parte-hartzaileen izenak.

NON AURKEZTU ETA EPEA*

Argazkiak mezu elektronikoen bidez honako helbide honetara bidaliko dira: izalgomendisaila@gmail.com . Aurkezteko epea 2015ko **otsailaren 20tik maiatzaren 13ra** izango da. Mezuaren gaia: argazki lehiaketa

*Aurkezten diren argazkiak, Izalgo Mendi Sailaren Facebook-era igoko dira, publikoak ikus eta bozkatu ahal dezan.

EPAIMAHAIA : mendi sailak aukeratutako aditu taldea.

SARIAK

Sail bakoitzean 3 argazki sarituko dira eta argazkien handitze batez gain mendiarekin zerikusia duen materiala da oparituko da.

Lagun bakoitzak sari bat baino gehiago ez du jasoko

ARGIBIDE ETA HARREMANETARAKO: izalgomendisaila@gmail.com

ONESPENA Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak osorik onartzen direla esan nahi du, baita epaimahaiaren erabakiak ere.